



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016KO OTSAILAREN 12AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Jesus Peñagarikano Labaka
Miren Itziar Arratibel Imaz

Etorri diren zinegotziak:
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Victoria Rodriguez Feloaga

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko otsailaren 12an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2016KO URTARRILAREN 22KO AKTAREN ONARPENA

2016ko urtarrilaren 22an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2016ko urtarrilaren 22an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- APATTAKO INDUSTRIGUNEAN ZABORRAK KUDEATZEKO ETA JASOTZEKO ERABILTZEN DIREN GARRAIOA APARKATZEKO LURZORUAREN OKUPAZIOAGATIK KANONA ONARTZEA

Gai hau oraindik argitzeko gelditzen da eta hurrengo hirigintza batzordean eztabaidatuko denez mahai gainean uztea erabakitzen da.

HIRUGARRENA:

3.- SUSTAPEN TEKNIKARIAREN IZENDAPENA (GAZTEMATIKA)

Ibarra udala Gaztematikako partaida da 2010 urtetik. Urte horretan Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren, Nerabeen eta Gazteen Sustapenerako Zerbitzuak eta Ibarra Udalak hitzarmen bat sintau zuten Ibarra haurren eta gazteen sustapen politikak indartzeko.

Zerbitzuaren garapen erritmoa arintzeko ezinbestekoa ikusten da udal taldeak zerbitzuaren jarraipena egiteko ardura teknikariren bati esleitzea.

Gobernu Batzordeak, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Nekane Azurmendi, Ibarra Udaleko Kultura teknikaria, izendatzea Gaztematika zerbitzuaren arduradun tekniko gisa edo erreferentziazko teknikari bezala.

BIGARRENA: Erabaki hau jakinarazi Nekane Azurmendi teknikariari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko haurren, nerabeen eta gazteen sustapenerako zerbitzu buruei.

4.- 2016 URTERAKO BERDINTASUN PLANAREN ONARPENA.

2016ko ekitaldian Euskal Autonomo Erkidegoko udallerriei, koadrilei eta mankomunitateei, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza tekniko ahalbidetzeko diru-laguntzak eskatzeko epea hilaren 30ean amaitzen da.

2013.urtean Ibarra Udalak “Ibarra emakume eta gizonen arteko egoeraren diagnostikoa” egin zuen Daiteke enpresaren eskutik. Txostena ekainean entregatu zen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalak, diagnostiko honi jarraia emateko beharra dagoela uste du. Horregatik, hiru enprekin harremanetan jarri da proposamenak aurkez dituzten.

Hona hemen.

- ELHUYAR aholkularitza: 10.658,18 €
- DAITEKE-Careers and Jobs, S.L: 7.865,00 €
- FARAPI evidentis:is 9.000,00 €

2013. urtean egindako diagnostikoa abiapuntu hartuta, proposamen sakon, sendo eta berritzailea aurkezten du ELHUYARrek.

2016ko urtarrilaren 22ko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik Gobernu Batzordeak, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Elhuyar aholkularitzak aurkezturiko proposamena, 10.658,18 eurotako (BEZ barne), emakume eta gizonezkoen berdintasunari buruzko diagnostikoa burutzeko.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitzari eta gastu hau 226.231.50.05 partidatik ordainduko da.

5.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta hogeita bost direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.